

Adin txikikoen arau penala onartu du Madrilgo Kongresuak

14 urtetik gorako gazteek bete beharreko zigorrak zehazten ditu

Erredakzioa / Donostia

Adin Txikikoen Ardua Penalaren Lege Organiko Arautzailea onartu zuen herenegun Madrilgo diputatuen kongresuaren plenoak. Bertan 14 urtetik gorako gazteek kode penala apurtzen dutenean bete beharreko zigorrak zeintzuk diren zehazten da. Legearen egileen arabera, errepresioa baino gazte horien heziketa sustatu nahi dute zigor horiek.

LEGEAK babes handia lortu zuen Madrilgo diputatuen artean: 198k alde bozkatu zuten, 8k kontra —Talde Mistokoak— eta 138 abstenitu egin ziren —PSOeko diputatuak—. Hala ere, aldeko botoa eman aurretik PPK Senatuan lege honi ezarritako zuzenketa batzuen gaineko kezka azaldu zuten zenbait diputatuk.

Lege hau ez da 14 urtetik 18ra arteko gazteentzat bakarrik egin, delitua bortxarik erabili gabe egin denean, 21 urte arteko gazteentzat ere balio dezake. Oro har, lege organiko berriak bi eratako zigorrak zehazten ditu. Batetik, arau- haustea oso larria denean, propio beraiantzat egokitutako zentroetan egotera behartuta egongo dira gazteak. Kasu larrietan zentro horietan bi urte egin beharko dituzte adin txikikoen, eta oso larrietan, —terrorismo kasuak aitzaten dira horien artean— bost urte.

Arau-urratzea hain larria ez denean, berriz, askatasunari uko egin gabe neurri «alternatibo» batzuek bete beharko dituzte adin txikikoen. Neurri horien artean egongo dira, esate baterako, honakoak: gidatzeko baimena indargabetzea, eguneko zen-

troetara joan beharra, beraie-na ez den familia batean egon beharra, gizartearentzat onuragarri izan daitezkeen lanak betetzea...

Neurri horien xedea adin txikikoen hezte eta bergizarteratzea dela esan dute legearen sustatzaileek. Ahots kritikoak ere izan ditu, ordea. Pablo Castellanos IU alderdikoak, esate baterako, legea «adin txikikoen epaiketa penala» dela esan zuen, eta hori onartezina dela, haur eta gazteek ez baitute horrelakorik merezi.

Adin txikikoaren babesa


Lege berrian zehaztu denez, fiskalak egingo du adin txikikoen eta gazteen kasuetan instrukzio lan guztia eta fiskalak, halaber, adin txikikoen babes-emaile bihurtuko dira. Kasuetan, gainera, desagertu egingo da salaketa herritar edo partikularren figura. Hala ere, fiskalak salaketa horren berri izan beharko du.

Lege hau behar bezala abian jartzeko propio adin txikiko neska-mutilekin lan egitera ohitutako epaile, fiskal, funtzionario eta teknikariak behar dira. Legea Estatu-ko Buletin Ofizialean argitaratu eta handik urtebetera jarriko da indarrean, eta or-

durako dena ondo atonduta egongo dela esan dute PPko ordezkariak. PSOEk, ordea, legeak «oinarri praktikoa» behar duela azaldu dute, dirutza handia —4.000 milioi pezeta— behar baita dena ondo prestatzeko.

Lege honek gaztekoen guraso eta arduradunak ere kontuan hartu ditu, eta beraien arduratu beharko dute gazteak eragindako kalteordainak ordaintzeaz.

Adin txikikoen babesa xede, epaiketak ez direla publikoak izango zehaztu du legeak.



EGUNKARIA

Adin txikikoen epaiketak ez direla publikoak izango dio lege berriak.

hainbat aukera

Askatasuna ukatzeko hainbat era

■ Askatasunik eza, ahal dela, saihestu nahi den neurria da lege honetan. Zigor era hori bazter uzteko hainbat aukera ematen dira. Hona hemen horietako zenbait;

Erregimen itxia • Zentro batean sartu eta han egon beharko dute adin txikikoen. Bertan egin beharko dituzte ikasketak zein bestelako ekintza oro.

Erregimen erdi-irekia • Zentroan bizi beharko dute, baina hainbat ekintza egiteko kanpora joateko modua izango dute.

Erregimen irekia • Zentroan bizi beharko dute, baina ohiko bizitza kanpoan egin dezakete.

Erregimen terapeutikoa • Osasun arazoak dituzten adin txikikoentzat propio atondua da hau. Arazo psikikoen zein drogaletasunak eragindako arazoak dituzten gazteek beraiantzat atondutako zentroetan egon beharko dute, eta horko programak bete beharko dituzte.